

HARREMANAK

Gure enpresaren helburu eta xedea bezeroekin harreman eramangarri eta estu bat mantentzea denez, erabaki dugu harreman pertsonala erabiltzea dela egokiena. Izan ere, aurrez aurre hitz egitea oso garrantzitsua iruditzen zaigu, bezeroak gustora sentitu daitezen, eta ohartu gara harreman automatizatuak ez duela fidagarritasunik transmititzen. Gainera, ez da eroso ari zaren hitzegiten jakin gabe harremanetan jartzea, eta gutxiago zure erosketak egiteko eskatzea. Horregatik guztiagatik, oso argi dugu helbururik garrantzitsuenetakoa bezeroekin harreman on bat izatea dela, eta haien eroso egotea dela gure lehentasuna.

Horretarako, ordutegi antzeko bat jarriko dugu harremantzea errazagoa izango baita. Ibilbide bat egingo dugu ahalik eta herri txiki guztienetatik pasatzen dena, bezeroek haien herrietatik noiz pasatuko garen jakin dezaten. Herri bakoitzean bi edo hiru orduko geldialdia egingo dugu, erosle guztiak pasa ahal izateko. Gainera, zailtasunak badituzte gure furgonetaraino iristeko, gu gerturatu gaitezke haien etxeetara.